

Prentsa oharra 2025/06/19

AIARALDEKO HIZKUNTZEN MAPA: ANIZTASUNETIK, ELKARBIZITZARA

Gaur hemen bildu gara Amurrioko bost ikastetxe, Amaurre, Zaraobe, Aresketa Ikastola, Mendiko Eskola eta Zabaleko, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluarekin batera, Aiaraldeko Hizkuntzen Mapa aurkezteko.

Proiektu hau hizkuntza aniztasuna ezagutzeko eta balioan jartzeko ariketa izan da. Gure ikasgeletan eta auzoetan hizkuntza asko daude presente: horietako bakoitzak dakarkigu istorio bat, jatorri bat, munduari begiratzeko modu bat. Eta hori guztia aberastasun gisa ulertzen dugu.

Hizkuntza guztiak dira garrantzitsuak eta zaindu beharrekoak. Hala ere, euskarak badu berezitasun bat: gure komunitatean guztien arteko zubi izateko aukera du. Euskarak, hizkuntza aniztasun horren erdigunean, elkargunea da. Denok ulertzeko, denok parte hartzeko, denok sentitzeko hizkuntza izan nahi du.

Mapa hau egitea ez da izan ariketa teoriko bat: ikasi dugu gure ingurua begiratzen, hizkuntzei erreparatzen eta elkar entzuten. Hausnarketatik, elkarrizketatik eta partekatutako bizipenetatik abiatu gara.

Gaurko agerraldi honetan, egindako lana partekatu nahi dugu, baina batez ere, mezu bat zabaldu: aniztasunetik eraikitzen dugu elkarbizitza, eta horretan, euskarak elkargunea da.

Eskerrik asko proiektuan parte hartu duzuen guztioi, eta eskerrik asko hizkuntzak errespetuz eta jakin-minez begiratzen dituzuen guztioi.

